

BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN EGINKIZUNEN GARAPENARI DATXEZKION JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK BILTZEKO ETA ADMINISTRAZIO LANAK 2017AN EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIORAKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eginkizunen garapenari datxezkion jarduerak dinamizatzeko, baliabide ekonomikoak biltzeko eta administrazio lanak egiteko zerbitzua kudeatzea 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra bitartean.

2. BALDINTZA TEKNIKOAK.

Zerbitzu horrek ondokoak bilduko ditu:

- a) Fundazioaren dinamizazio jarduerak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea eta burutzea.
- b) Fundazioaren helburuak garatu eta lortzeko baliabide ekonomikoak biltzea.
- c) Fundazioaren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren administrazio lanak eta lan teknikoak egitea.

BIZKAIA-BIZKAIALDE Fundazioa irabazteko xederik gabeko erakundea da. Beraren azken helburua Bizkaiko kirola sustatu eta garatzea da, eta arreta berezia eskaintzen dio errendimenduko kirolari, batez ere, edozein motatako baliabide ekonomikoak lortuz; nagusiki babesle publiko eta pribatuak bilatzen ditu, eta lortutako baliabideak Bizkaiko kirolariei laguntzeko programak finantzatzeko erabiltzen ditu.

3. BETETZEKO EPEA.

Zerbitzu kontratua betetzeko epea 2017ko urtarrilaren 1an hasiko da eta 2017ko abenduaren 31n amaituko, bi egun horiek barne.

4. KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren aurrekontua gehienez ehun mila euro (100.000 €) izango da, BEZa aparte.

5. ORDAINTZEKO MODUA.

Kontratuaren prezioaren ordainketa honela egingo da:

- %75^a dagokion hilabeteko faktura aurkeztu eta beronen onarpenarekin.
- Gainontzeko %25eraino, babesletzak lortzeko unean izandako emaitzen arabera, honako irizpideak jarraituz:
- Entitate babesle berrietatik lortutako diru aportazioen %10
- Jadanik Fundazioan dauden entitatebabesleen diru aportazioen hazkundearen %10.
- Fundazioa dinamizatzeko egindako jardueretan lortutako gaindikinen %10.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Kontratu honetan ez da prezio berrikuspenik izango.

7. BERMEAK.

Kontratuaren adjudikazioa hartzen duen enpresak, betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du: adjudikazioko prezioaren %5, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren adjudikazioa jakinarazi eta biharamunetik hasita. Prezioaren atxikipen gisa jarri ahalko da bermea, edo bestela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errrege Dekretuko 102. artikuluan ezarritako moduetatik edozeinetan.

Berme osoa edo, hala behar denean, bermearen zati bat itzuliko da, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoari jarraituz, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuko betebeharrak bete eta gero.

8. KONTRATUA BETETZEA.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara beteko da.

Kontratua betetzean agiri honetako klausulei jarraituko zaie, baita espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei ere, halakorik bada, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera jokatu da.

9. ADJUDIKAZIODUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.

- 9.1. OROKORRAK: adjudikaziodunaren kargura izango dira kontraturiko zerbitzu osoa egiteko beharrezkoak diren gastu guztiak: kontratua prestatu eta formalizatzeko izapideak, material eta instalazioak, bitartekoak, lanekua, Gizarte Segurantzaren zergak, era guztietako erantzukizunak eta aseguruak, eta enpresa adjudikaziodunari dagozkion gainerako zama eta betebeharrak, edozein motatakoak direla ere. Behin betiko adjudikaziotik aurrera bere gain hartuko ditu horiek denak eta, gainera, kontratuaren ondorioz edo lizitazioan parte hartzearen ondorioz sortzen diren beste guztiak.

Adjudikaziodunari dagokio kontratua betetzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizialak nahiz partikularrak eskuratzea.

Enpresa adjudikaziodunak, ordainketa osagarriko eskubiderik gabe, kontratua ondo garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak egin beharko ditu, esate baterako lan bileretan edo informazio bileretan parte hartzea. Betebeharrak bermealdia amaitu arte iraungo du.

9.2. ERANTZUKIZUNA ETA KALTEAK: adjudikazioduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen erantzulea. Halaber, kontratua betetzeko lanen ondorioz kalte edo galerarik eragiten bada, adjudikazioduna izango da erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat.

- 9.3. LAN ARLOKO BETEBEHARRAK: adjudikaziodunak lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko osasunaren arloetan indarra duten lege xedapenak bete beharko ditu, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ez du urratzeen erantzukizunik izango.

Enpresa adjudikaziodunak langile nahikoak eta kualifikatuak eduki beharko ditu kontratua betetzeko egin behar diren lanetarako. Aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera utzi gabe, enpresa adjudikaziodunak bere kabuz zehaztuko ditu bere langile-beharrizanak. Betiere langile talde egokia eduki beharko du, behar bezala koordinatua, egin beharreko zerbitzuak garaiz eta behar bezala egiteko gaitasuna erakutsiko duena.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ez du izango ez erantzukizun zuzenik, ez solidariorik, ez subsidiariorik, enpresa adjudikaziodunaren lan arloko betebeharrengatik edo lan kontratuen amaieraren ondorioz sor litezkeen betebeharrengatik, ez kontratu honen indarraldian ezta indarraldi hori amaitutakoan ere. Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu lan kontratuek lege eta lan arloetan sortzen dituzten ondorio guztiak, kontratu honen indarraldian zein hura amaitutakoan. Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ez du ez lan-harreman juridikorik, ez harreman zibilik ez administrazio harremanik izango zerbitzuak egiten dituzten enpresa adjudikaziodunaren langileekin.

- 9.4. LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEA: une oro bete beharko dira laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarra duen legerian ezarritako betebeharrak guztiak, eta kontratu honen ildotik egiten diren jardueretan laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak behar bezala aplikatzeko legez ezarrita dauden bitartekoak antolatuko dira. Enpresa adjudikazioduna izango da betebeharrak horien arduradun bakarra eta, horrenbestez, huts egite edo akatsek ekar ditzaketen ondorioen erantzule bakarra. Adjudikaziodunak agintzen du Euskalduna Jauregian edota zerbitzua egiten den gainerako lekuetan laneko arriskuei aurrea hartzeko erabiltzen diren arauak beteko dituela.

- 9.5. DATU PERTSONALAK: kontratua betetzeko, baliteke enpresa adjudikaziodunak tratamendu automatizatua egiten zaien datu pertsonalak erabili behar izatea. Horrela izanez gero, datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta lege horiek garatzen dituzten arauetan xedatutakoa bete beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuan ageri den xederako baino ezin izango ditu erabili kontratuaren ondorioz eskuratzeko dituen datu pertsonal automatizatuak.

Kontratuko zerbitzua burutu ondoren, erabilitako datu pertsonalak Bizkaia Bizkaialde Fundazioari eman beharko zaizkio. Enpresa adjudikaziodunak suntsitu egin beharko ditu bereak, salbu eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak idatziz baimena ematen badio, geroago egin litezkeen zerbitzuetarako, datu horiek bost urtean gordetzeko, behar bezalako segurtasun neurriekin.

- 9.6. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK: kontratuaren xede diren lanetatik jabetza intelektualaren eskubideak edota "copyright" eskubideak sortzen badira, horien jabe bakarra Bizkaia Bizkaialde Fundazioa izango da. Alderdiak agintzen dute inguruabar hori jasorik uzteko agiri egokia egiletsiko dutela, behar izanez gero.

Enpresa adjudikaziodunak behar diren kontratuak egingo ditu laga beharreko jabetza intelektualaren eskubideen titularrekin.

- 9.7. ISILPEKOTASUNA: kontraturiko zerbitzuei lotuta enpresa adjudikaziodunak jaso litzakeen datu guztiak isilpekoak izango dira eta haien identitatea eta sekretua errespetatu beharko dira. Isiltasun profesionala urratzen bada, eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko die enpresa adjudikaziodunak Bizkaia Bizkaialde Fundazioari eta ukitutako pertsonari.

- 9.8. LEHIA ASKEAREN BERMEA: bai prozedura honetan bai gerokoetan, zerbitzua egiten duen erakunde kontratistak, bere egoeraz behar ez bezala baliatu ez dadin, aldaketa prozesuan zehar betebeharrak hauek izango ditu:

- Eskualdaketa egiteko behar diren informazio tekniko eta administratibo guztiak ematea, gehienez ere 2 asteko epean.
- Zerbitzu mailak ez apaltzea.
- Aldaketa prozesua ez zailtzea.

Halaber, kontratuaren indarraldi osoan, adjudikazioduna aldatuko balitz erreleboa errazte aldera, betebeharrak izango du:

- Adjudikaziodun berriari kontratuko zerbitzuen kudeaketa zaildu edo eragotziko ez dioten teknologiak eta lotutako sistemak erabiltzea.

10. ONARPENA ETA BERMEALDIA.

Kontratuaren xede den prestazioa amaitzen denetik hogeita hamar egun igaro baino lehen, prestazio hori onartzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Halaber, hirurogei eguneko bermealdia egongo da, onarpen formalaren egunetik hasita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako ondorioetarako. Enpresa kontratistak, bermealdi horretan, egindako lan edo prestazioetan azal daitezkeen akats edo hutsez erantzun beharko du. Bermealdia amaitu arte, enpresa adjudikazioduna izango da kontraturiko lanak behar bezala gauzatu izanaren eta azaldu litezkeen okerren erantzulea; Bizkaia Bizkaialde Fundazioako arduradunek lan horiek egiten ziren bitartean aztertu edo onartu izanak edo egiaztapen, balorazio nahiz ziurtatze partzialetan onartu izanak ez dio adjudikaziodunari inolako salbuespen edo eskubiderik emango.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak eragozpenik azaltzen ez badu, epe hori amaitzen denean adjudikaziodunaren erantzukizuna iraungi egingo da.

11. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzeagatik zigor ekonomikoak ezarriko dira, enpresa adjudikaziodunari entzun ondoren.

Ez betetzeak oso larriak, larriak edo arinak izango dira, larritasunaren, zerbitzuan duten eraginaren eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioari edota hirugarrenei eragiten dizkieten kalteen arabera.

Kontratuko baldintzaren bat edo eskaintako hobekuntzaren bat betetzen ez badu, enpresa adjudikaziodunak zehapena jasoko du.

A) EZ BETETZE OSO LARRIAK:

- Kontraturiko prestazioak etetea, salbu eta ezinbesteko arrazoiengatik edo Bizkaia Bizkaialde Fundazioak onartutako arrazoi justifikatuengatik egiten denean.
- Kontratu osoa edo zati bat lagatzea, aldeztatik baimenik eskuratu gabe.
- Enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal zaizkion betebeharren ez betetze larria edota errepikatua.
- Arrazaren, sexuaren, erlijioaren, hizkuntzaren edo iritziaren ziozko bereizkeria guztiak.
- Lanetan atzeratuta ibiltzea, horrek Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren irudiari kalte oso larria egiten dionean, edota zerbitzuetan atzeratuta ibiltzea.
- Hiru hutsegite larri egitea.

B) EZ BETETZE LARRIAK:

- Ekintzaz edo omisioz, kontratuko betebeharrak edo fundazioak emandako jarraibide eta aginduak ez

betetzea, jokabide hori, bere ondorioei erreparatuta, hutsegite oso larritzat jotzen ez denean.

- Kontratuaren xede diren lanetan atzeratuta ibiltzea.
- Hiru hutsegite arin egitea.

C) EZ BETETZE ARINAK:

- Enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal zaizkion betebeharrak ez betetzea, zabarkeria edo ardura falta desenkusaezinaz.

ZIGORRAK: enpresa adjudikaziodunak arau-haustea egiten badu zigorra ezarri ahalgo zaio. Hona hemen zenbatekoak:

- 1) Hutsegite oso larriengatik, fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren %50 ez betetze bakoitzeko.
- 2) Hutsegite larriengatik, fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren %25 ez betetze bakoitzeko.
- 3) Hutsegite arinengatik, ohartarazpena, edo fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren %5 ez betetze bakoitzeko.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Patronatuari edo berak eskuordetzen duen organoari dagokio zigorrak ezartzea kontratua ez betetzeagatik.

Enpresa adjudikaziodunak ez betetze larriak edo oso larriak egiten baditu, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo goian azaldutako zigorrak ezartzea.

Zigorrak gauzatzeko, lehentasunez, haien zenbatekoa kenduko da, enpresa adjudikaziodunaren ziurtagirien ordainketetan.

Zigorra jasotzeak ez du enpresa adjudikazioduna salbuetsiko hirugarren pertsoneri edota Bizkaia Bizkaialde Fundazioari zerbitzuaren ondorioz eragindako kalte eta galeren erantzukizunetik, eta berak ordaindu beharko ditu kalte-ordainak.

12. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

13. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

Kontratu hau **prozedura negoziatuaren** bidez adjudikatuko da. Aldez aurretik, eskaintza egiteko eskatuko zaie kontratuaren xede den jardura egiteko gai diren enpresa batzuei, gutxienez hiru enpresari, ahal dela.

Kontratua formalizatu aurretik kontratuari buruzko informazioa argitaratuko da Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren kontratzaile-profilean. Deskribapen laburra egingo da eta adjudikatzeko metodoa azalduko da.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, kontratua adjudikatzeko oinarritzat hartuko direnak, honako hauek dira:

- Prezioa.
- Jarduera programa proposamena. Berau Fundazioaren helburu eta beharri zehatzak egokitu beharko zaie, eta balorazio ekonomikoa eragan beharko du. Proposamenari atxikiko zaio aurreikusitako ekintza guztien deskribapen xehea eta dituen helburuak.
- Baliabide ekonomikoak biltzeko jardunaren kronograma.

14. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahalko dute pertsona natural edo juridikoek, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina onetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 6. artikuluan ezarritako debekuetariko bakar bat ere ez badute kontratuak egin ahal izateko.

Euren kabuz parte hartu ahalko dute, edo beren beregi emandako ahalorde askietsiaren bitartez baimendutako pertsona batek ordezkatuta. Pertsona juridiko bateko kide bat haren ordezkari gisa agertzen denean, agiri bidez frogatu beharko du horretarako ahalmena eman zaiola. Kasu batean zein bestean, goian aipatutako kontratatzeko ezgaitasunaren kausak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

15. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA.

Negoiazioan parte hartzeko eskaintzak Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren egoitzan (Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua, 48009 Bilbo) aurkeztuko dira, 09:00etatik 13:00etara, **2016ko AZAROAREN 10erarte**.

Lizitatuzaileek bi gutun-azal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, itxita, eta biek inskripzio hau izango dute: **“BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN EGINKIZUNEN GARAPENARI DATXEZKION JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK BILTZEKO ETA ADMINISTRAZIO LANAK EGITEKO ZERBITZUA”**

Gutun-azal guztien kanpoaldean identifikazio datu hauek jarri beharko dira derrigorrez:

GUTUN-AZALA: AZPITITULUA:
“2017 URTEAN, BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN EGINKIZUNEN GARAPENARI DATXEZKION JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK BILTZEKO ETA ADMINISTRAZIO LANAK EGITEKO ZERBITZUA”
Sozietatearen izena: Sozietatearen helbidea: Helbide elek.: Harremanetan jartzeko telefonoa: Faxa:
Ahalordedunaren izen-deiturak: Ahalordedunaren sinadura:

“A” gutun-azaleko azpitulua “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA” izango da, eta honako agiri hauek sartuko dira gutun-azal horretan:

- 1) Lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren nortasun agiri nazionala. Horretaz gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea.
- 2) Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eraketaren eskritura edo, aldaketarik izan bada, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu beharreko merkataritza arloko legeriaren arabera inskripzioa beharrezkoa denean. Baldintza hori beharrezkoa ez bada, jarduteko gaitasuna eraketa eskritura edo dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo fundazio-egintzaren bidez frogatuko da, jarduera arautzen duten arauak azaltzen dituen, bidezkoa bada, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta.
- 3) Erantzukizuneko aitortpena, 1. eranskineko ereduaren egin. Bertan adieraziko da lizitatzailleak ez duela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60.1 artikuluan aipatzen diren debekuetatik bakar bat ere kontratuak egin ahal izateko, eta, beren beregi, egunean dituela xedapen indardunek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, ez badira azken bi inguruabar horien ziurtagiriak eranstean.
- 4) Lizitatzaillearen kaudimen ekonomiko-finantzarioaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Kaudimen ekonomiko-finantzarioa frogatzeko, lizitatzaillearekin jardun ohi duen finantza-erakundeak kaudimenari buruz emandako banku-ziurtagiria aurkeztu ahal da. Lizitatzailleak teknikari kualifikatuak badituela frogatzeko, kontratua betetzeko ardura izango duten langileen titulu akademikoak eta lanbide tituluak aurkeztuko dira. Baliabide material egokiak badituela frogatzeko, erakundeak kontratua betetzeko dauzkan materialen, instalazioen eta ekipamendu teknikoaren aitortpena aurkeztuko da.
- 5) Lizitatzailleak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzeko agiriak.
- 6) Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) eratzen badute lizitazioan elkarrekin parte hartzeko, elkarteko enpresa bakoitzak frogatu beharko du jarduteko gaitasuna duela, aurreko puntuetan ezarritako moduan. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak xedearen zein atal egingo lukeen, guztiek bete behar dituzten kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

DOKUMENTAZIOA NOLA AURKEZTU BEHAR DEN ARGITZEKO OHARRAK

1. OHARRA: LIZITATZAILEEN ERREGISTROKO ZIURTAGIRIA: Euskal Autonomia Elkarteko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaillearen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztu ahal da, edo bestela Europako Erkidegoko sailkapen ziurtagiria, horrela egiaztatu ahal da baitira jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, erantzukizuneko aitortpena eta kontratisten sailkapena, eta, halaber, zerga betebeharrak edota Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Aurkezten den ziurtagirian jasorik ez dauden inguruabarrak frogatzeko behar diren agiriak erantsiko dira.

Beti ere, ziurtagiri horrekin batera lizitatzaillearen erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko da. Bertan adieraziko da ziurtagirian jasorik dauden inguruabarrak bere horretan iraun dutela eskaintza aurkezten den unera arte.

2. OHARRA: Enpresa lizitatzailleak notario-agiriak aurkeztu beharko ditu, eta agiri horiek Notariotza Legean eta Araudian legezatzeari eta legitimazioari buruz ezarritakoa bete behar dute. Administrazio agirien kasuan,

jatorrizkoak edo kopiak nahiz fotokopiak aurkeztu ahalko dira.

3. OHARRA: Merkataritzako erakunde batek Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren lizitazio batean parte hartzen badu, eta, ondorioz, eraketaren edo aldaketaren eskritura publikoa eta ahalordetze-eskritura edo horien kopia konpultsatuak eta ordezkartza-ahalordeak aurkezten baditu, hurrengo sei hilabeteetan egiten diren deialdietako lizitazioetan parte hartu ahalko du agiri horiek berriro aurkeztu beharrik izan gabe, salbu eta agiriok jada errealitatearekin bat ez datozenean. Horretarako, eskaintza aurkezten duenean, agiri horiek zein lizitaziotan aurkeztu zituen adierazi beharko du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, kontratazio-prozedurarako deialdia argitaratzen den egunean hasiko da zenbatzen sei hilabeteko epea.

4. OHARRA: Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ez du agiririk konpultsatzen, eta ematen dizkioten agiriak ez ditu atzera itzuliko. Beraz, lizitatuak ohartarazita daude proposamenak aurkeztu aurretik egin beharko dituztela izapide guztiak.

“B” gutun-azaleko azpituak “ESKAINZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA” izango da.

a) Eskaintza ekonomikoa

Honako eredu honen arabera egingo da proposamen ekonomikoa:

..... jaunak/andreak,
helbidea:, PK:, NAN zk.:, telefonoa:
....., gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa dudalarik, nire izenean (edo
..... ordezkaturik,
helbidea:, PK:, telefonoa:, NAN edo IFK, pertsona
fisikoa edo juridikoa den:), jakinik lizitaziorako deialdia egin dela **2017 URTEAN, BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN EGINKIZUNEN GARAPENARI DATXEZKION JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK
BILTZEKO ETA ADMINISTRAZIO LANAK EGITEKO ZERBITZUA** kontratatzeke,

HAUXE ADIERAZTEN DUT NIRE ERANTZUKIZUNAREN PEAN:

1) Konpromisoa hartzen dudala zerbitzua prezio honetan egiteko:
..... euro (letraz eta zenbakiz)

Prezio horiek kontzeptu guztiak biltzen dituzte, tartean zergak, gastuak, tasak eta arielak, zerga eremu guztietakoak, baita kontratistaren industria mozkin ere.

2) Ezagutzen ditudala administrazio klausula berezien eta zehaztapen teknikoaren agiriak eta kontratua arautuko duten gainerako agiriak, eta osorik onartzen ditudala eta men egiten didala.

3) Ordezkatzen dudana enpresaren indarreko araudian enpresak irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko eskatzen diren baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

Sin.

Enpresaren zigilua

16. AGIRIEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kalifikatu egingo du garaiz eta behar den moduan jasotako dokumentazioa ("A" gutun-azala), eta, akats materialen bat ikusten badu, lizitatuzaileari hiru egun balioduneko epea emango dio akatsa zuzentzeko.

Proposamen ekonomiko gisa aurkeztutako eskaintza ("B" gutun-azala) jendaurreko ekitaldian irekiko da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren ondoko laugarren egun baliodunean, goizeko hamaiketan.

17. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA.

Proposamenak ikusirik, parte-hartzaileekin negoziazioak egingo dira, bidezkoa izanez gero. Ondoren kontratazio organoak espedientea aztertuko du eta adjudikazio proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari. Proposamen horretan kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta finkatuko dira.

Adjudikazio-hartzaileari adjudikazioa jakinaraziko zaio, eta berak, bost egun naturaleko epean, jakinarazpen egunaren biharamunetik hasita, honako hau egin beharko du:

- a) Behin betiko bermea jarri.
- b) Lizitazio honi buruz eguneroko prentsan jarritako iragarkiak ordaindu.
- c) Azkenik, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren egoitzan agertu kontratua formalizatzeko.

Kontratua formalizatu aurretik, adjudikaziodunak frogagiriak aurkeztu beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzeko, ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.

Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua formalizatzen ez bada, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahalko du, interesdunari entzun ondoren, eta kalte eta galeren ordaina eskatu ahalko du.

Kontratua formalizatu arte ezingo da kontratua betetzen hasi, salbu eta espedientearen tramitazioa presakoa edo larrialdikoa denean.

18. KONTRATUA ALDATZEA.

Behin kontratua burututa, kontratazio organoak interes publikoari lotutako arrazoiengatik eta ezustekoei aurre egiteko bakarrik egin ahal izango ditu aldaketak, eta horien beharra behar bezala justifikatuko da espedientearen.

Kontratua aldatu ahal izango da kontratuaren bidez bete nahi diren beharrianak behar bezala asetzeko beharrezkoak diren helburu berriak lortu ahal izateko, lurralde eremuaren eta jarduera eremuaren handitzeari lotuta.

Aldaketa horiek ez dute eraginik izango kontratuaren funtsezko baldintzetan. Aintzat hartuko da, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 305. Artikuluan ezarritakoa.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

19. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua pribatua izango da.

Agiri honetan dauden klausulen bitartez arautuko da kontratua, edo, horrelakorik ezean, honako hauen bitartez:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua.
- Ordezko gisa, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak.

20. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratuaren funtsaren inguruan sortzen diren auziak jurisdikzio arruntaren esku jarriko dira, eta prestatzeko eta adjudikatzeko egintzei dagozkien auziak, berriz, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esku jarriko dira, bi kasuetan ere Bilboko epaitegi eta auzitegietan. Hala ere, alderdiek erabaki dezakete euren arteko auziak arbitrajepean jartzea, indarra duen legerian ezarritakoaren arabera.

1. ERANSKINA

Erantzukizuneko aitopenaren eredia

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), nire izenean, edo enpresa ordezkatuz (helbidea:, IFZ:,),

ERANTZUKIZUNEKO AITORPEN HAU EGITEN DUT:

Nik edo nire ordezkatuak ez dugu kontratatzeko debekurik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Textu Bategina oinetzi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikuluaaren arabera. Aitorpen honek barruan hartzen ditu, beren beregi, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen baldintzak, indarra duten xedapenetan ezarritakoak; hitzematen dut baldintza horien frogagiriak aurkeztuko ditudala kontratua formalizatu aurretik, kontratua adjudikatzen badidate.

.....(e)n, 2016ko(a)ren(e)(a)n

Sin.

Enpresaren zigilua